



Sortzen

26 URTE



ERAIKITZEN





Sortzen



SARRERA

26 URTE

joan dira Sortzen sortu zenetik eta, bai gizartea, bai eskola eta hezkuntzaren beharrak erabat aldatu dira.

Mende laurden honetan lan handia egin du **SORTZENEK, Euskal Eskola Herritar berria eta Hezkuntza sistema propioa** helburu.

Hainbat proiektu, irakurketa, material, dinamika... Helburu estrategikoak gauzatzeari begira.

Aldaketa ugari eta BIRPENTSATZEKO BEHARRA!!



Sortzen

GOGOETA EGITEKO BEHARRA

ALDAKETA UGARI AZKEN URTEOTAN:

25 urte hauetan jendartea asko aldatu da, oso abiadura handian, Eta aldaketa horrek goitik behera irauli ditu herritarren interesak eta jarduteko ereduak:

- ☐ Hezkuntza sistema eta bera ulertzeko moduak aldatu eta dibertsifikatu egin dira.
- ☐ Gure aisia eta kontsumo ereduak, komunikatzeko erak... aldatu egin dira
- ☐ Herrigintzan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko moduak ere.
- ☐ Ikasleen heziketa ikastetxeen gain delegatzeko joera izugarri handitu da,
- ☐ Indibidualismoa indartuz, lan kolektiboarekiko lotura desagerraraziz...



Sortzen

GOGOETA EGITEKO BEHARRA

ALDAKETEN ERAGINA:

Hezkuntza mugimenduan, ikastetxeetan eta SORTZENEN eguneroko jardunean **eragin ikaragarria izan du** guzti honek:
Eta gainera,

- ☐ Gure lan eta funtzionamendu-eredua zaharkitua gelditu zaigu hein handi batean.
- ☐ Gure akatsek eta asmatu ez izanak ere eragina izan dute egun elkartean bizi dugun errealitatean.
- ☐ Parte hartzearen jaitsierarekin eta hezkuntza komunitatean eragiteko gaitasunaren zailtzearekin batera, langileok berezkoak ez ditugun funtzioak betetzen ikusi dugu gure burua.



Sortzen

GOGOETA EGITEKO BEHARRA

HELBURUEKIKO ATXIKIMENDUA

Jendartearen aldaketa orokorrekin batera,

- ☐ Sortzenen helburuekiko atxikimendua ere aldatu egin dela esan dezakegu, pentsamendu eta ikuspuntuen dibertsifikazioarekin.
- ☐ Sortzenen inguruko ikuspegiak anitzak dira gaur egun. Ez dugu denok berdin ulertzen elkarteak.
- ☐ Gure elkartearen ikuspegi anitzak ez dira soilik jendartean eman diren aldaketen eragina, noski, Sortzenen baitan egindako lanaren eragina ere bada, egindako lanaren emaitza..



Sortzen



BI ZUTABE NAGUSI

2013



Haize-berritu prozesuaren bidez Lan ildoen berrazterketa egin genuen

SORTZENEN ETAPA BERRIARI BURUZKO NORABIDEAN BI ZUTABE EDO OINARRI





Sortzen



- Hizkuntza eskubideak
- Murgiltze eredua
- Euskara erabilera
- ...

EUSKARA

EGUNEROKO ARAZOAK

- Jangela
- Partehartzea
- Pedagogia
- Langileria
- Euskal curriculum
- Euskara
- Aniztasuna
- Hezkidetzatza
- ...

EUSKAL ESKOLA
HERRITAR BERRIA

HEZKUNTZA
SISTEMA PROPIOA

HEZKUNTZA
BURUJABETZA

URTE LUZE HAUETAN LAN ILDO UGARI LANDU DITUGU

Lan ildo hauen garapena era egokian aurrera eramateko **sortzen birpentsatzen!!**





Sortzen



SORTZEN BIRPENTSATZEN

Gogoetarako txosten hau nazio ikuspegiz osatutako batzorde iraunkor batek osatu du:

Gogoetarako txostenaren atalak:

- ☐ **1. atala:** Sorrerari eta ibilbideari errepaso ahalik eta objektiboena.
- ☐ **2. atala:** Balantze eta balorazio txiki bat-gogoetaren beharra argi agertzen da.
- ☐ **3. atala:** Batzordekideek egindako azterketa/gogoeta.
- ☐ **4. atala:** Ondorio nagusiak eta aurrera begirako balizko aukera batzuk.



Sortzen

25 URTE



ERAIKITZEN

1. MENDE LAURDENARI BEGIRA



Sortzen

gure sustraiak

Joan den mendeko 80. hamarkadan aro berri bat irekitzen
hasi zen Euskal Herrian. Nolabaiteko trantsiziorako unea.

- Hego Euskal Herrian bereziki, garai ilunetatik gentozen. Diktadura eta errepresio basatiaren garaiak. **Errepresio politikoa, soziala eta kulturala.**
- Hala ere, errepresioari aurre eginez, **gure hizkuntza eta kulturaren biziraupenerako urrats ugari emanak** ziren herri ekimenari esker (ikastolak, gau eskolak, mugimendu kulturalak...).
- Bestalde, zabaltzen ari zen aro berri horretan, Euskal Herriak behar **zuen eskolaren inguruko kezkek** eta eztabaidek ere hartu zuten euren lekua.



Sortzen



gure sustraiak

90. hamarkadaren hasieran, “EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN ALDEKO MUGIMENDUA” sortu zen.

SORTZEN MUGIMENDUA hain zuzen. elkartearen sorrera.

Gure

SORTZEN
EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIAREN
ALDEKO MUGIMENDUA

Mende laurdena **ikastoletako zein eskola publikoetako kideak** Euskal Herriak behar zuen hezkuntzaren inguruko hausnarketa bideratzeko helburuarekin bildu zirela .

Hau da, eremu ezberdinetatik **gure herriak behar zuen eskola ereduak margotu eta eraikitzeko asmoz.**



Sortzen




gure sustraiak

1993

Euskal Eskola Publikoaren Legea EAEn
Ikastolen publikakaziorako bidea irekitzen da

Araba, Bizkaia eta
Gipuzkoako **sare**
publikora bilduriko
ikastolek elkarrekin
antolatuta
jarraitzearen behar
larria zuten

Nafarroa Garaiko **eskola**
publiko **euskaldunen**
elkartea izatera pasatzen da



HELBURU NAGUSIA:

EUSKAL ESKOLA PUBLIKO BERRIA ETA HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA



Sortzen



gure enborra

SORRERATIK GURE EZAUGARRI BEREIZGARRIENETAKOA

Ikastetxeko sektore guztiak bere baitan biltzen dituen elkarte da Sortzen.

Kalitatezko eskola berma dadin, eskola-komunitateko partaide guztiek elkarlana ezinbestekoa dela sinistuta.

Sortzen HEZKUNTZA PROIEKTU bat da bere osotasunean. Helburu estrategiko batzuen baitan.

Mende laurden honetan **EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOAREN BIDEAN:**

- Han hemenka euskal hezkuntzaren bidean abiatutako proiektuen aterkia.
- Zerbitzuak (aholkularitza juridiko eta orokorra, formakuntza saioak, hitzaldiak,...)



Sortzen



gure fruituak

Buru belarri egin dugu lan **EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA** gauzatzeko xedearekin.

EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA lortzeko eta
EUSKAL ESKOLA HERRITAR BERRIRANTZ bidea eginez.

Eta lanketa horretan eta helburu horrekin bi oinarri izan ditugu:

PLAN
INTEGRALA



Eta bide horretan **FRUITU UGARI**: batzuk gure kabuz bakarrik, beste batzuk beste batzuekin batera,...



Sortzen



gure fruituak

PROIEKTUAK



**EUSKARAZ
MINTZA**

KIMUBERRI



**AIXE
AISIALDIA**



**IKASLE EUSKALDUN
ELEANIZTUNAK**

MATERIALA





Sortzen



gure fruituak

Bide horretan **D** ereduaren zabaltze prozesuan lan izugarria egin dugu, **Hego Euskal Herrian, euskarazko kalitatezko hezkuntza sendotuz** eta beste esparruetan eraginez.



euskaraz
bizi
nahi dut





Sortzen

gure fruituak

Euskal Eskola berriaren aldeko festak



etorkizuna euskaraz blai!





Sortzen

PLAN
INTEGRALA

gure fruituak

JANGELA
ereduak



JARDUNALDI
JARRAIA



EUSKAL
CURRICU
LUMA

Ratioak



Ikastetxeen autonomia

0-3 etapa

GUK GURE ESKOLA
Ebaluazio sistema propioa !!!

Eskola mapa



Egutegi propioaren lanketa





2. BALANTZE- BALORAZIOA ERRADIOGRAFIA

Sortzen

☐ 25 urtetako ibilbidearen balantze txiki bat

☐ Erradiografia

Nola egin genuen balantzea eta erradiografia?

2015/16 ikasturtean:

Egin genuen Harreman prozesuaren bidez: Bazkideen lagin bat eta elkar-tearekin harreman estua izan duten eragile zein norbanakoekin.

Harreman prozesu horretatik, etorkizuneko bidea marrazten lagun dezaketen ondorio eta datu nagusiak jasotzen ditu txostenak.

Bi ataletan banatuta:

- Proiektuaren garapena
- Antolaketa eta parte hartzea.



Sortzen

ELKARTEAREN INFORMAZIO OSAGARRIA

- ❑ Bazkide kopurua: 74 (60 Nafarroan eta 14 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan)
- ❑ Elkartearen helburuak aurrera eramateko orduan, bazkideen inplikazioa, oro har, oso maila txikikoa da eta puntuala.
- ❑ Bazkideak lanerako aktibatzea gero eta zailagoa da.
- ❑ Hainbat kasutan, irakasle zein guraso askok ez daki Sortzen zer den.
- ❑ Zerbitzuak dira Sortzenen erreferentia ikastetxe askotan.
- ❑ Erabakitze-organo guztietan parte-hartzea gero eta urriagoa da.
- ❑ Horren ondorioz, elkartean ari diren langileek berezkoak ez dituzten funtzioak betetzen dituzte.



Sortzen

3. SORTZEN AURRERA BEGIRA:GOGOETARAKO OINARRI BAT

26 urteotako ibilbideari errepasoa egin ondoren, batzorde iraunkorrak galdera batekin eman zion hasiera gogoetari:

Baliagarriak al dira, egun, Sortzenek duela 25 urte zehaztutako xedeak?

Hasierako helburuen sintesia:

“Euskal Herriaren errealitate eta beharretan oinarritutako hezkuntza eredua definitu eta sare publikoko ikastetxeen eta ikastolen bertute eta indarguneak geure eginez, haien mugak eta hutsuneak gaindituko dituen Euskal Eskola Publiko berria eraikitzea...”



Sortzen

3. SORTZEN AURRERA BEGIRA: GOGOETARAKO OINARRI BAT

Aipatutako Xedek baliagarriak diren aztertzeko egungo testuinguruan kokatu behar ditugu:

Hezkuntzaren testuinguruari dagokionez:

- Hezkuntza **sorkuntzarako, eraikuntzarako eta eraldaketarako** ezinbesteko **zutabea eta bitartekoa** dugu.
- Hezkuntzaren egiteko nagusia, horrela definituko genuke: pertsona ororen **garapen integrala bermatzea**, hau da **garapen pertsonala eta soziala**.
- Baina horretarako herritarroi errealitatea **ulertu eta eraldatzeko tresnak eskaini behar dizkigu hezkuntzak**. Herri batek tresna horiek **antolatzen duen moduari hezkuntza sistema deitzen diogu**.
- Hezkuntza eta hezkuntza sistemak bitartekoak dira: Baina hori baino gehiago ere, herri eta herritarroi dagokigun eskubidea ere bada **hezkuntza antolatzen duen sistemaren nondik norakoak antolatzea eta kudeatzea**.
- Egun, duela 26 urte bezala, **bi estatuen menpe daude aplikatzen diren legeak**, gehienez moldaketa batzuk egiteko **eskumen urriak**.
- Euskal herriak ez dauka bertoko herritarren behar, nahi eta **erabakietan oinarritutako hezkuntza sistemarik**.
- Zoritxarrez, 26 urte eta gero, gaurkotasuna dute sortzenen sorreran zehaztutako helburuek.



Sortzen

3. SORTZEN AURRERA BEGIRA: GOGOETARAKO OINARRI BAT

Testuinguru politikoari dagokionez:

- Duela 26 urte bezala egun ere, **zatiketa juridiko-administratiboak** asko **zailtzen du** nazio ikuspegia daukan **proiektua aurrera eramatea**.
- Lehen esan bezala, aldaketa ugari eman dira euskal jendartean, **hezkuntzan benetako aldaketak lortuko badira, orain arte bezala presio sozialaren bidez izango da.**
- Presio hori egiteko **indar sozialaren gaurko izaera, ez da duela 26 urte zegoena. Inplikazio handia eskatzen duten proiektuekiko atxikimendua** eta partaidetza gain beheran joan dira.
- Proiektu abstraktu edo epe luzekoetan baino erantzun zehatzak eskatzen duten egoerei.
- Aldaketa horiek, **eragin handia izan dute, herri mugimendu guztiengan**, Sortzen ez da salbuespena izan.
- Ziur asko ez da asmatu **sortzenen jarduna aldaketa horietara garaiz egokitzen...**
- Eta horrek **faktura pasa dio sortzeni**, bazkideen inplikazioari, elkartearen antolaketari, eragiteko gaitasunari...



Sortzen

3. SORTZEN AURRERA BEGIRA: GOGOETARAKO OINARRI BAT

- Ziurrenik **egiteko modu batzuk agortuak daude**, baina herritarron ilusioa, gauzak aldatzeko gogoak, **agortu direnik zalantza handiak** sortzen ditu. Egunerokotasunean ikusten da, mota bateko zein besteko aldarrikapenetan. Esan dezakegu, **Egiteko moduak aldatu dira baina ez egiteko gogoak.**
- Egoeraren irakurketa egokia bada, sortzenen **eraldaketarako helburuek hezkuntza komunitatearen parte handi batekin bat egin dezaketela uste da.**
- Sortzenek ordezkatzan duen proiektua herri proiektu eraldatzailea da, beste inork garatzen ez duena.
- Proiektua berrindartzeko aukera egon badagoela ere esaten da txostenean.
- **Helburuak birformulatu, mezua egokitu, proiektuan parte hartzeko formula berriak eskaini, antolaketa eredu eraginkorrak. Etapa berri bat ireki!**



Sortzen

3. SORTZEN AURRERA BEGIRA: GOGOETARAKO OINARRI BAT

Zein izango litzateke etapa berri horren norabidea? Zer da lortu nahi duguna?

Bi zutabe nagusi: a) Hezkuntza euskalduna b) hezkuntza burujabetza.

Hezkuntza euskaldunaren baitan ondoko helburuak:

- Euskara, euskal kultura eta bertatik garatutako curriculum ardatz izatea.
- Euskaraz hezteaz gain, euskaraz bizitzea ahalbidetzea.
- Munduko kulturei irekita dauden euskaldun eleaniztunak sortzea.

Hezkuntza burujabetzari dagokionez,

Hezkuntza eredua eta sistema berton erabaki eta eraiki, antolatu eta kudeatzeko eskubidea gauzatzea helburu:

- **Hezkuntza sistema propiorantz**, euskal **eskola herritar berriaren eredu orokorra** definitu eta garatu.
- **Eredu orokor horren baitan, beti ere**, hezkuntza zentroen autonomian oinarrituz, komunitatearen parte hartzearen bidez, zentro bakoitzaren proiektua, egitura, antolaketa... Bertatik bertara....

Zer dira bi ideia hauek hezkuntzan gabiltzan pertsona eta taldeentzako? Horren definizioak eratorritako kategorietan legoke sortzenen bidea... Batzordekideen aburuz



Sortzen

4. ETORKIZUNeko SORTZEN AUKERA ANITZ ONDORIOAK - LABURBILDUZ

- **Sortzen**, hezkuntzan ari den elkarte bat izatetik harago, **herri proiektua da**.
- Euskal hezkuntzarako ez ezik, Euskal **Herriarentzako beharrezkoa den proiektua**.
- **Baina**, horretarako, **bere burua berrasmatu behar du** Sortzenek: mezua egokitu, parte-hartzeko formulak dibertsifikatu, komunikazio bide eta modu eragingarriak bilatu eta antolaketa eraginkorra sortu...
- Sortzen proiektuak **bere burua eta bere jarduna azken xedean zentratu behar du**, egiten duen lan guztia bi oinarriren baitan zentratuz eta horrela komunikatuz: **hezkuntza euskalduna eta hezkuntza-burujabetza**.
- Egiten den lan oro kohesionatzen duten zimenduak, **Plan Integrala eta OHA dira**; lorpen komunak. Eguneratu eta teorian zein praktikan garatzea da **aurrera begirako lanaren funtsa**.



Sortzen

ETORKIZUNEKO SORTZEN AUKERA ANITZ ONDORIOAK - LABURBILDUZ

- Inposatzen dizkiguten hezkuntza-eskemak albo batera utziz, etorkizuneko Euskal Eskola eta Hezkuntza Sistema eraikitzea du helburu nagusi Sortzenek.
- Horretan sinesten duten norbanako, talde eta eragileekin elkarlanean eta elkarrekiko errespetuz, eskuz esku.
- partaidetzarako formula irekiak eta malguak asmatzea ezinbestekoa da.
- Sortzenek ordezkatzten duen proiektua **elkartea bera baino askoz garrantzitsuagoa da.**
- Euskal hezkuntza propioan sinesten duten eta haren alde **euren ekarpena egiteko prest eta gogotsu dauden norbanako, talde zein eragileen topaleku komuna** eta erreferentziala izan daitekeelako.
- Hori horrela izanik, etorkizuneko ekarpenen nolakotasunaz eta egiteko moduez hausnartu beharra dago.

BATZORDE IRAUKORRAREN AZKEN EKARPENA: formula ezberdinak egon badaitezke ere eztabaidarako **5 aukera** proposatzen dizkigute.



Sortzen



Metodologia

1. SAIOA: AURKEZPENA otsaila-martxoa

2. SAIOA: EZTABAIDA Apirila

Txostenaren 3. Eta 4. atalak eztabaidatuko ditugu.

- Aurrera begira proposatu ditugun 5 aukerak aurkeztuko ditugu.
- AMIA metodoaren bidez.

3. SAIOA: Nazio batzarra: Azaroa.

KANPO PROZESUA: apirilean.